



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urriaren 26a

130. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak osoko zuzenketa onetsi du (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Jurramendiko mendi-hegaletan proiektatutako hondakin eta lohi plantarako alternatibak eta soluzioak bila ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuiau egiten duela N-1 errepidean bidesariak jartzea Etzegaraten. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berma dezan irakasle kualifikatuenak hautatuko direla 2017/2018 ikasturterako lan-eskaintza publikoan. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arbuia dezan Nafarroak Espainia barruko foru komunitate berezia izateari uztea bilatzen duen adierazpen oro. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Nafarroako Gobernuak Madrilen irekiko duen bulegoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

—Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Nazioarteko Harremanen gradua sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

—Galdera, udako hilabeteetan osasun etxeetan hartuko diren berrantolamendu-neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—Galdera, 2016-2017 ikasturterako beken eta laguntzen deialdi orokorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

- Galdera, Garesko oinarritzko osasun-barrutian larrialdietako eta larrialdietatik kanpoko osasun-garraioak egindako irteerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Arte Gaztearen 2017ko Topaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Kulturaren Plan Estrategikoa prestatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, aldi baterako irakasle-kontratazioko lanpostuen esleipenean izandako akatsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak ENCORE-Ingurumenari buruzko Europako Erregioen Konferentzian parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Nafarroako Poliziei buruzko Foru Lege proiektua.

OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETA ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko urriaren 19an egindako Osoko Bilkuran, onetsi zuen Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak Nafarroako Poliziei Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa.

Horri horrela, Legebiltzarreko 132.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, bazter utzia gelditzen da aipatu proiektua.

Iruñean, 2017ko urriaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Jurramendiko mendi-hegaletan proiektatutako hondakin eta lohi plantarako alternatibak eta soluzioak bila ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko urriaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Jurramendiko mendi-hegaletan proiektatutako hondakin eta lohi plantarako alternatibak eta soluzioak bila ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Jurramendiko mendi-hegaletan proiektatutako hondakin eta lohi plantarako alternatibak eta soluzioak bila ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizartearen eta ingurumenaren aldetik egokia den konponbide bat bila dezan eskualde horrentzat, Iguzkitzako Kontzejuko Udalarekin batera”.

Iruñean, 2017ko urriaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko urriaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da alda dezan maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

– 2017ko abendua baino lehen alda dezan 209/1991 Foru Dekretua, maiatzaren 23koa, azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legea garatzen duena, Gizarte zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen araubideari buruzkoa.

– Negoziazio-mahai bat era dezan, Nafarroako Gobernuak –gizarte-baliabide eta -zerbitzuen arduradun eta finantzazaila nagusi den heinean–, sindikatuek eta sektorearen enpresek eta erakundeek osaturik, egoera aztertzeke eta Nafarroa osoan lan-baldintzak arautuko dituen esku-hartze sozialeko hitzarmen autonomiko bat taxutzeko.

Behin ukitutako alde guztiek esku-hartze sozialeko hitzarmena sinaturik, Nafarroako Gober-

nuak sinaduraren egunera arteko lizitazio, hizarmen eta itunak moldatuko ditu, horiek lan-esparru berrira egokitze aldera.

Maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretua aldatu bitartean, etorkizunean egingen diren kontratuetan eta horien berriztatzeetan erabiltzaile eta egun bakoitzeko langileen kopurua ezarriko da,

lanbide-profilaren araberrako ordu/urte eredia gairiditurik, zerbitzu orokorretako ratioak berreskuratuko dira (jantokia, sukaldea, garbiketa) eta gorantz joko da lanbide-profilen ratioetan beharra hautematen denean”.

Iruñean, 2017ko urriaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuia-tu egiten duela N-1 errepidean bidesariak jartzea Etxegaraten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko urriaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuia-tu egiten duela N-1 errepidean bidesariak jartzea Etxegaraten”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du arbuia-tu egiten duela N-1 errepidean bidesariak jartzea Etxegaraten”.

Iruñean, 2017ko urriaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berma dezan irakasle kualifikatuenak hautatuko direla 2017/2018 ikasturterako lan-eskaintza publikoan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko urriaren 19an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da berma dezan irakasle kualifikatuenak hautatuko direla 2017/2018 ikasturterako lan-eskaintza publikoan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du berma dezan 2017/2018 ikasturterako lan-eskaintza publikoan irakaslerik kualifikatuenak hautatzen direla, halako moldez non, eskaintako lanpostu guzti-guztietarako, izangai guztiek modua izanen baitute aukera-berdintasunean eta beren merezimendu eta gaitasunak aintzat hartuak izanik lehia-tzeko”.

Iruñean, 2017ko urriaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arbuia dezan Nafarroak Espainia barruko foru komunitate bereizia izateari uztea bilatzen duen adierazpen oro.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteak honako mozio hau aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da arbuia dezan Nafarroak Espainia barruko foru komunitate bereizia izateari uztea bilatzen duen adierazpen oro.

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2017ko urriaren 19an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2017ko urriaren 17ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urriaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak Madrilen irekiko duen bulegoari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak Madrilen irekiko duen bulegoari buruzkoa. Galdera 2017ko maiatzaren 12ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko abuztuaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Guzmán Garmendia Pérez jaunak 9-16/PES-00156 galdera egin du, Nafarroako Gobernuaren bulego bat Madrilen irekitzeko neurriari buruz, zeina jasota baitago Nafarroako 2017-2020 aldirako Nazioarteko Planean. Garapen Ekonomikorako kontseilariak, honen bidez, honako hau informatzen dio:

Egiazki, Nafarroako Nazioarteko Planaren "Gobernantza eta Lidergoa" izenburuko 1. ardatzaren ekintzetako bat, hain zuzen ere 1.5 ekintza, da Madrilen merkataritza-diplomaziaren presentzia izatea.

Planean azaltzen den bezala "merkataritza-diplomazia ez da soilik atzerrian egiten. Madrilen merkataritza-diplomaziaren presentzia aktiboa izatea, halaber, beharrezkoa eta produktibitate handikoa da. Baliteke beharrezkoa ez izatea Madrilen bulego iraunkor bat ezartzea merkataritza-, inbertsio- edo garapen-jarduerak erraztuko

dituen elkarreragina sustatzeko prest dauden enbaxadekiko, kantzilertzekiko, merkataritza-kontseilarietzekiko harreman jarraitu hori betetzeko, baina beharrezkoa dena da egiteko, eginkizun eta behar den ardua ezartzeko beharrezko eta kome-nigarri diren foroetan presente egoteko.

Laburbilduz, figura bat edukitzea Nafarroaren interesen alde jardun dezakeena eta haiek orde-ka ditzakeena nazioartekotzearekin lotutako orga-nismoetan, erakunde ofizialetan, ekimen eta proiektuetan eta oso bereziki atzerriko erakundeetan. Figura hori Madrilen egonen da edo Madriler-a joanen da halako moduz non lortuko baita Foru Komunitateak presentzia iraunkor bat izan dezala nazioartekotze-ekintzetan diharduten enteetan, eta, aldi berean, maila instituzionaleko atzerriko bisitarien berri izan dezan eta kontaktu horiek izan ditzan".

Gaur egun, Nafarroako 2017-2020 aldirako Nazioarteko Planaren zirriborroak, behin jendau-rreko erakusketaren eta herritarren parte-har-tzearen izapidea iraganda, onspen-izapidea falta du.

Garapen Ekonomikorako Departamentuan hautatuko den pertsonaren profila eta eginkizunak zehaztu dira, eta gaur egun hasi-hasierako fasean gaude lanpostu hori betetzeko bide administrati-boan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Par-lamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko uztailaren 27an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Nazioarteko Harremanen gradua sortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Unibertsitate Publikoan Nazioarteko Harremanen gradua sortzeari buruzkoa. Galdera 2017ko maiatzaren 12ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko abuztuaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Guzmán Garmendia Pérez jaunak 9-16/PES-00157 galdera egin du, Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) Nazioarteko Harremanen gradu bat sortzeari buruz, zeina jasota baitago Nafarroako 2017-2020 aldirako Nazioarteko Planaren 4.6 estrategian. Garapen Ekonomikorako kontseilariak, honen bidez, honako hau informatzen dio:

NUPen Nazioarteko Harremanen gradua sortzeko neurria oinarritu zen Unibertsitatearen hasiera-analisi batean, eta abian jartzea aztertu den titulazioetako bakoitzaren arloarekin lotutako egile batzuek egindako lan batean.

Lehenengo analisisia izan zen egungo arau-esparruaren eta Estatuko unibertsitate publiko eta pribatuetako goi mailako unibertsitate-irakaskuntza mota desberdinen eskaintzaren eta eskariaren bilakaeraren errepasso bat egitea, eta zehaztasun handiagoz, NUPen eskainitakoen errepassoa, bai eta haien irakaskuntzarako eta ikerketarako baliabideena ere.

Gero, analisisiak eskaintzaren joakeran sakontzen du. Hartara, ikusten da Nafarroan, aztertutako hiru urtekoaren (2013-2015) osotasunari erreparatuta, unibertsitate sartzeko probak gaintzen dituzten ikasleen % 29 Nafarroaz kanpoko unibertsitateetara joaten direla. Foru Komunitatean matrikulatzen direnetatik, % 35 Nafarroako Unibertsitate Publikoan matrikulatzen dira eta % 19, berriz, Nafarroako Unibertsitatean. Gainerako % 17ak ez du unibertsitate-ikasketarako matrikularik egiten urte horretan.

NUPen matrikulatzen ez diren ikasleen jomugako unibertsitateei erreparatuta, ikusten da lau unibertsitatek guztizko leku-aldatzeen % 70,6 hartzen dutela:

- Nafarroako Unibertsitatea, % 38,9rekin.
- Euskal Herriko Unibertsitatea, % 17,9rekin.
- Zaragozako Unibertsitatea, % 8,9rekin, eta
- Errioxako Unibertsitatea, % 4,9rekin.

UNEDek ikasleen % 6,2 erakartzen ditu; horrek esan nahi du urtean batez beste 53 leku-aldatze izan direla aztertutako hiru urtekoan.

NUPen matrikulatzen ez direnek gehien eskatzen dituzten gradu-ikasketak honako hauek dira: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Psikologia, Medikuntza, Erizaintza, Zuzenbidea, Farmazia, Lehen Hezkuntzako Maisu-maistra, Kimika, Kazetaritza eta Biologia.

Lurraldearen ikuspuntutik, espedienteen leku-aldatzeen xehakitzeak, Nafarroako Foru Komunitateko eskualdeen arabera, aukera ematen du egiaztatzeko jokabidea desberdina dela ikasleen bizitokiaren arabera. Hartara, beste erkidego batzuetako campusetatik hurbil dauden Nafarroako eskualdeetako (Ipar-mendebaldea, Lizarrerria, Goi Erribera eta Tuter) ikasleen NUPeko matrikulazio-maila batez bestekoaren nabarmen azpitik dago.

Espainiako unibertsitate publikoetan eskaera handia duten eta NUPen eskaintzen ez diren beste titulazio batzuen eskaintza eta eskaria aztertuta, ikusten da nahiago izaten diren titulazioak Osasunaren Zientzien eta Zientzien (Albaitaritza, Odontologia, Bioteknologia eta Zientzia Biomedikoak) arloetakoak direla. Ingeniari-tzen artean, Ingeniaritza Aeroespaziala eta Ingeniaritza Biomedikoa ageri dira. Kriminologia, Itzulpen-gintza eta Interpretazioa eta Nazioarteko Harremanak dira Giza eta Gizarte Zientzien arloan gehien eskatzen direnak. Titulazio horietatik hiru-tan (Zientzia Biomedikoak, Ingeniaritza Biomedikoa eta Nazioarteko Harremanak), ikasle-postuen eskaintza oso txikia da, segur aski Espainiako unibertsitateetan berriki ezarri baitira titulazio ofizial gisa.

“Nazioarteko Harremanak” titulazioari dagokionez, 2014-15 ikasturtean 2 unibertsitate publikotan baizik ez zen eskaintzen (Madrilgo Uniber-

tsidad Complutensen eta Rey Juan Carlos Unibertsitate). Hala eta guztiz ere, titulazio hori 10 unibertsitate pribatutan eskaintzen da; horien artean, Nafarroako Unibertsitatea dago, zeinak 2015-16 ikasturtean eskaini baitu lehen aldiz. Gradu hori gradu bikoitz gisa ere eskaintzen da, beste batzuekin gertatzen den bezala: Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza, Zuzenbidea edo Kazetaritza.

1. taulan ikusten den bezala, lau titulazio horietatik lau ez dira eskaintzen hurbilen dauden unibertsitate publikoetatik bakarrean ere. Zehazki, Zientzia Biomedikoak, Ingeniaritza Biomedikoa, Ingeniaritza Aeroespaziala eta Nazioartek Harremanak dira, baina Nafarroako Unibertsitateak horietatik bi eskaintzen ditu (Ingeniaritza Biomedikoa eta Nazioarteko Harremanak).

Titulua	Unibertsitate publiko presentzialak				Hurbil dauden unibertsitate publiko presentzialak*			
	Eskaintza ikasle-postuak	Unibertsitate berria	Onarpenerako gutxieneko nota	Lehetasuna duen titulazioa	Eskaintza ikasle-postuak	Unibertsitate berria	Onarpenerako gutxieneko nota	Lehetasuna duen titulazioa
Albaitaritza	1072	9	10,635	756%	150	1	10,528	571%
Odontologia	771	12	11,523	601%	71	2	11,249	7,1532
Bioteknologia	1181	19	10,669	313%	106	2	11,871	405%
Zientzia Biomedikoak	395	5	11,771	308%	0			
Ingeniaritza Aeroespaziala	1170	9	11,507	304%	0			
Kriminologia	1740	17	8,447	268%	60	1	8,100	353%
Itzulpengintza eta interpretaziokoa	2062	17	7,945	198%	60	1	8,254	142%
Ingeniaritza Biomedikoa	415	7	10,846	177%	0			
Nazioarteko Harremanak	230	2	9,932	168%	0			

* Zaragozako Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea; Iturria: SIIU

Titulazioen mapa berriaren diseinuan kontuan hartu beharreko beste faktore batzuk dira gradu edo gradu bikoitzeko eta gradu elebidunetakoirakaskuntza ofizialen baterako programazioak. Goranzko joera bat dago ikasleek horrelako titulazioak eskatzean, eta horrek berekin dakar gutxieneko nota handia izatea.

Azkenik, nazioarteko hezkuntzaren arloko joeren errepaso bat egiten da, nagusiki Europan eta herrialde anglosaxoietan, urrutiko hezkuntzari dagokionez eta titulazioetako laneratzei dagokionez, eta NUPek eskainitako titulazioen AMIA analisi bat ere ageri da.

Azterketa honako ondorio hauekin amaitzen da:

Beharrezkoa da NUPek berrazter dezala titulazioen egungo eskaintza; horretan, izan ere, honako ekintza hauek iradokitzen dira gradu edo masterreko titulazioen mapa berri bat egituratzerakoan, epe ertainean:

- Gradu edo titulazioen eskaintza berri bat egituratzea, hiru urteko iraupenarekin izatera espezialistagoa dutenetan eta lau urteko iraupenarekin izatera diziplinartekoagoa dutenetan, honako esparru hauetan:

- BiIngeniaritza, bioTecnologia, bioMedikuntza (BITeM)

- Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika (STEM)

- Historia, ondarearen kudeaketa, turismoa, kultur industriak (HPIC)

- Psikologia (PSIC)

- Nazioarteko Harremanak (RRII)

- Gradu bikoitzak dituzten titulazioen eskaintza bat egituratzea, mugikortasuneko eta enpresetako praktikak egiteko programekin, gradu edo tituluen eskaintza berri batetik abiatuta.

- Gaur egungo tituluak berrikusi eta aldatzea, ikasketetarako plan modularrago bat zehazteko; horrek aukera emanen du titulu bat baino gehiago aldi berean ikasteko, diziplinarteko eskaintza berri bat errazteko (irakaskuntza ofizialen eta titulu propioen nahasketa bat) edo nazioarteko ibilbide berriak eskaini ahal izateko, edo berriazko hizkuntza batean espezializatuak. Horri dagokionez, bereziki interesgarritzat jotzen da tituluak eta hizkuntzen irakaskuntzarako programak batera eskaintzea (English Learning Program, Deutsch-

Lernprogramm, Programme d'Apprentissage du Français, eta abar).

- Egungo graduko ikasketa ofizialetan online erara emateko ikasgaien eskaintza bat sartzea, presentziala, egungo irakaskuntza-eskaintza hobetu eta malgutzeko, eta ikasgaien eskaintza bat egituratzea, zeinak, etorkizunean, NUPek parte hartzen dueneko nazioiko eta nazioarteko mugikortasun programetan sartu ahalko baitira.

- Masterren eskaintza birpentsatzea, zabal daitezen gutxienez ere 90 ECTS izateko, bai lanbide-orientazioa duten masterretan, bai ikerketarako orientazioa dutenetan ere, eta oso bereziki azken urte hauetan eskaera oso txikia izan dutenetan. Masterren egungo eskaintza Campus Iberus delakoan sartzea, eta dauden beste batzuekiko balizko sinergiak bilatzea (campusen arteko masterak).

Hasierako analisi horretatik abiatuta, 2016ko urrian lantalde bat eratu zen Nazioarteko Harremanen gradurako, Nazioartekotzerako errektoreorde Hugo Lópezek koordinatu zuena. Lantaldeak “koaderno” baten lanketan lan egin zuen, graduaren helburuak eta ezaugarriak zehazteko.

Tituluaren helburu orokor gisa, honako hau geratu zen definituta:

Tituluaren funtsezko helburua da nazioarteko eremuan eta, bereziki, lankidetzarenean, diziplinarteko profil akademikoa duten profesionalak prestatzea, honako hauekin lotutako arloei buruzko ezagutza orokor batekin:

- Nazioarteko merkataritza, nazioarteko merkataritza-kontratazioko gaiak, nazioarteko fiskalitatekoak eta Nazioarteko Zuzenbide pribatukoak barne direla.

- Estatuaren eta nazioarteko nortasun juridikoa duten gainerako subjektuen (nazioarteko erakundeak, Nazioarteko Tratatuaren Zuzenbidea) arteko nazioarteko harremanak; giza eskubideen babesa harreman horien esparruan, esparru berean erabilerara komuneko ondasunen erabilerarako araubidea eta subjektu horien nazioarteko erantzukizuna.

- Lankidetzarako eta prestakuntza solidariarako mekanismoak eta programak, nazioarteko eremuan (lankidetzara eta garapena) zein tokiko eremuan (hirugarren sektorea) aplikatzekoak.

Titulua ezartzearen justifikazioari dagokionez, honako hau xedatu zen:

Gradua lotuta dago erakundearen garapenean funtsezkoak diren bi parametroekin: nazioar-tekoetzea (enpresetan) eta hirugarren sektoreko lankidetzara.

Lehenengo helburua da Nafarroako enpresen nazioartekotze prozesua indartuko duten profesionalak prestatzea. Alde batetik, detektatzen da zailtasuna dagoela enpresa batzuetan hizkuntzak dakizkiten profesionalak aurkitzeko, batez ere Iruñerrian ez dauden enpresen kasuan. Bestetik, egresatuak nazioartekotze prozesua zuzendu ahalko du graduaren hainbat arlotan —zuzenbidea eta nazioarteko merkataritza, esate baterako— eskuratu dituen eskumenak aplikatuz.

Halaber, egresatuak prestakuntza izanzen dute beren lanbide-jarduerara GKE-etan eta lankidetzara eta elkartasunera orientatuta dauden erakunde publikoetan garatzeko. Gure ustez, sektore hau intentsiboa da enpleguan, eta enplegu-hobi oso agerikoak dauzka; esate baterako, Europako proiektuen kudeaketa edo lankidetzara eta elkartasun-proiektuak IKTen bitartez dinamizatzea.

Tituluak eskualdearen ezaugarri sozioekonomikoekin daukan loturari dagokionez, honako hau aipatzen da:

Nafarroa lehiakor batekiko harremana, gure enpresen posizio orokorra hobetuz. (S. Dokumentuari eta Titulazioen Mapari edo aurreko analisiari dagokionez).

- Nafarroako mugako erkidego bat da, eta haren lurraldean atzerriko zenbait enpresa daude kokatuta.

- GKE ugari Nafarroatik operatzen dute.

- Garrantzitsua da industriaren arloko esportazio-jarduerak izan duen hazkundea, une honetan bereziki nekazaritzako elikagaien sektorean.

- Nazioarteko kapitalak Nafarroako industrian daukan garrantzi handia.

- Espezializazio adimentsuaren sektoreak oso nazioartekoak izanzen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko abuztuaren 25ean

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, udako hilabeteetan osasun etxeetan hartuko diren berrantolamendu-neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, udako hila-beteetan osasun etxeetan hartuko diren berrantolamendu-neurriei buruzkoa. Galdera 2017ko irailaren 11ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak PES-00190 idatziz erantzuteko galdera egin du, informazioa nahi baitu osasun etheen udarako antolamenduari buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

O-NOZen osasun etheen oporretarako antolamendua egiten da kontuan hartuz bete egin behar direla bai herritarren laguntza-beharrak, bai atsedeen-egun batzuez gozatu nahi duten langileen eskubideak ere.

Apiriletik, zenbait ekintza egin dira estaldura egokia eta kalitatezkoa eman ahal izateko. Horri dagokionez, garrantzitsua da nabarmentzea zailtasun izugarri handiak egon direla oinarrizko osasun laguntzako sendagileen ordezkapenak egiteko profesionalak kontratatzekeo garaian.

Ikuspuntu operatibotik, osasun etxeetako lantaldeetako zuzendaritzek kasuan kasuko arloko gerentziei ordezkapenak egiteko dauzkaten langile-beharrak bidaltzen dizkiete, balioets ditzaten. Langile fakultatiboen kasuan, ordezkapenak ezaltzeko bi irizpide lehenesten dira: batetik, pertsona bakarreko lanpostuak betetzea eta, bestetik, landa-eremuetako lanpostuak betetzea, hirietako lanpostuen gaineratik. Behin giza baliabideak banatuta, osasun etxe bakoitzaren antolamendua ezartzen da, txanda bakoitzean lan egiten duten profesionalen arabera.

Zehazki, Iruñeko barrutian, bi txandetan profesionalak antzera banatuta dauden osasun etxeetan, oporrak halako moduz finkatzen dira non ordutegi guztia (8:00etatik 20:00etara) estaltzen baita. Goizetako eta arratsaldeetako plantilletan asimetria handia dagoen osasun etxeetan, jarduerak goizez metatzen da. Halako egoeretan, baliabideak ordutegi zabalago batean barreiatzeak eragiten du aurkako edozein egoera gertatuta (eta halakoak gertatu, gertatzen dira) ahuldade-egoera bat edukitzea, eta errealitateak erakusten du laguntza-zama handiena goizez metatuko lizatekeela, eta langile gutxiagorekin.

Haur txikien (0 eta 2 urte artekoak) azterketak normaltasunez egiten dira. Haur handientzat programaturako azterketen jarduerak udan gutxitu ohi da, besteak beste erabiltzaileek nahiago izaten dutelako azterketa horiek beren ohiko pediatarrekin egin. Nolanahi ere, gaixoei beti goizez artatuak izateko aukera ematen zaie, arratsaldeko kupoetako gaixoei murriztapenik egin gabe, kalitatea, egonkortasuna eta estaldura egokia bermatuz. Gogorarazten da, gainera, arratsaldeko ospitaleen kanpoko larrialdiko laguntza, urtearen gainerakoan bezala, San Martin zentroan ematen dela.

Dokumentu bat eransten dugu udan zehar Iruñeko Barrutiko osasun etxeetako ordutegietan egin diren aldaketekin.

Lizarrako Osasun Barrutian, udako hilabeteetan, ez da ez pediaren, ez helduen sendagileen inongo kontsultarik itxi edo orduz aldatu.

Tuterako Osasun barrutian, garrantzitsua da nabarmentzea inongo osasun etxerik ez dela itxi arratsaldean. Gainera, pediatriaren kasuan, oporren garaian lehentasuna eman eta hura antolatu da, halako moduz non oinarrizko eskualde bakoitzean erreferentziako pediatria bat egon baita goizeko ordutegian. Horrenbestez, Tuterako Osasun Barrutiko haurrak normaltasunez artatu dira, bai osasuneko aldiak azterketak egiteari dagokionez, bai prozesu akutuei dagokienez ere.

Azkenik, oinarrizko osasun laguntzako ordezkapenetan, ekainean, uztailean eta abuztuan, 2013tik hasi eta gaur arte, egindako gastuaren zenbatekoa igorri da, eurotan.

	Iruña	Lizarra	Tutera
2013	1.746.467	346.354	381.224,26
2014	1.447.350	348.920	340.129,89
2015	1.904.890	414.633	376.223,56
2016	1.675.878	330.642	328.198,22
2017	2.142.194	350.377	351.711,03

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko urriaren 2an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez
Cunchillos

Osasun etxeak ixtea (arratsaldez) Iruñeko eskualdean, uztailean eta abuztuan, laguntza programatuan

Hirikoak:	Uztaila	Abuztua
Barañain	Uztailaren 3tik 14ra 07/24.	08/14.
Berriozar	07/17-21, 07/24.	8/14 eta 8/25.
Buztintxuri	uztailaren 17tik irailaren 1era.	
Arrotxapea	Uztailaren 24a	Abuztuaren 14a
Sanduzelai	Uztailaren 17-24	Abuztuaren 18-31
Donibane	Uztailaren 24a.	Abuztuaren 14a.
Atarrabia	Uztailaren 24a.	
Iturrama		14tik 31ra.
Mendillorri	Uztailaren 3, 4 eta 5ean.	
Il. Zabalgunea	Uztailaren 24a.	Abuztuaren 14a.
Txantrea	Uztailaren 3tik 31ra.	Abuztuaren 1etik 31ra.
Sarriguren	Uztailaren 3tik 31ra.	Abuztuaren 1etik 31ra.

Galdera, 2016-2017 ikasturterako beken eta laguntzen deialdi orokorrari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2016-2017 ikasturterako beken eta laguntzen deialdi orokorrari buruzkoa. Galdera 2017ko irailaren 11ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urriaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak 9-17/PES/-00193 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa.

2016-2017 ikasturterako beken eta laguntzen deialdi orokorrera aurkeztutako eskabideak 9.156

izan ziren; horietatik, 5.258 baietsi egin ziren. Horietatik, azkenean, Nafarroako Gobernuaren beka emanen da soilik Nafarroako Gobernuaren beka Ministerioarena baino handiagoa den kasuetan edo Ministerioarena lortu ez den kasuetan.

Uztailaren 5ean, 3.899.457,12 euro ordaindu zitzaizen 2.714 eskatzaileri.

Abuztuaren 17an, berriz, 298.852,14 euro ordaindu zitzaizen 158 eskatzaileri.

Irailaren 29an, 353.725,72 euro ordainduko zaizkie beka jasotzeko zain dauden 241 eskatzaileri eta aurreko ordainketetako 25 eskatzaileri, zeinei zenbateko osagarri bat ordaintzen baitzaie.

Horrenbestez, 2016/2017 deialdian, 3.113 eskatzaileri ordaindu zaizkie beka edo laguntzak.

Iruñean, 2017ko urriaren 4an

Hezkuntzako kontseilaria: María Roncesvalles Solana Arana

Galdera, Garesko oinarrizko osasun-barrutian larrialdietako eta larrialdietatik kanpoko osasun-garraioak egindako irteerei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Garesko oinarrizko osasun-barrutian larrialdietako eta larrialdietatik kanpoko osasun-garraioak egindako irteerei buruzkoa. Galdera 2017ko irailaren 11ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak 9-17/PES-00194 idatziz erantzuteko galdera egin du, informazioa nahi baitu "Garesko oinarrizko osasun-barrutian larrialdietako eta larrialdietatik kanpoko osasun-garraioari buruz". Hauxe da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Lehenengo bi galderei dagokienez, Excel dokumentu bat erantsi dugu; hartan, eskatu bezala, Garesko oinarrizko osasun-barrutiko bizi-euskarri aurreratuko (BEA) eta oinarrizko bizi-euskarriko (OBE) anbulantzien joan-etorriak jaso dira.

Datu horiek interpretatzerakoan, hainbat gogoeta hartu behar dira kontuan. DYArekin bi anbulantzetatik, A-659 zenbakikoa da SOS-Nafarroaren erregistroetan oinarria Garesen duena; horrenbestez, Garesko DYArekin datuak anbulantzia horri

dagozkionak dira. Estatistikan ateratzen diren gainerako adierazleek oinarria Iruñean dute erregistratuta, baina jaietan eta beste batzuetan beren kokalekua alda dezakete; hori dela eta, litekeena da horietako bat edo beste Garesen kokatuta egotea egun jakin batean. Antzeko zerbait gertatzen da OBEarekin eta BEAarekin. Printzipioz guztiak OBEak dira, baina horietako bat edo beste medikalizatuta egon daiteke, jaietarako bitarteko gisa, inguruabar hori komunikatu gabe; horrenbestez, SOS Nafarroan BEA balitz bezala egon daiteke jasota. Kasu horretan, ezin da identifikatu anbulantzia medikalizatu gisa diharduenik, eta, horrenbestez, ez da sartzen Larrialdiko Osasun Garraioaren Sarean (LOGS), baizik eta bestelako bitarteko berezietan. SOS-Nafarroan-112an alta ematen zaie eta LOGSen sartzen dira soilik zerbitzu hori ematen ari direla berriaz jakinarazten denean.

Hirugarren gaiari dagokionez. DYA GKE bat da, SOS-Nafarroaren diru-laguntza izendun bat jasotzen duena. Diru-laguntza hori Nafarroako Gobernuaren aurrekontutan dago jasota. DYAk ez du Nafarroako Gobernutik beste inongo ordainsari edo ordainketarik jasotzen zerbitzuaren truke. Ez dakigu beste entitate baten diru-sarrerarik jasotzen duen, beste bide batzuetatik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko irailaren 20an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

Garesko OBE, 2016an

	Urtarrila	Otsaila	Martxo	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urtia	Azaroa	Abendua	GUZTIRA
Adios	BB Iruña												0
	DYA Gares												0
	DYA Iruña					1							1
	Lizarra												0
Añorbe	BB Iruña	1	1	2		4	4	1			3		16
	DYA Gares		1	1			1					1	4
	DYA Iruña												0
	Lizarra												0
Artazu	BB Iruña				1				2			1	4
	DYA Gares												0
	DYA Iruña												0
	Lizarra												0
Zirauki	BB Iruña		1	2	2	1				6	1	2	15
	DYA Gares			1		1						2	4
	DYA Iruña		1										1
	Lizarra		1	1	3					1			6
Eneritz	BB Iruña	3	1	1				1				1	7
	DYA Gares	1					2					1	4
	DYA Iruña												0
	Lizarra												0
Girgillao	BB Iruña					1		2					3
	DYA Gares												0
	DYA Iruña			1									1
	Lizarra												0
Legarda	BB Iruña		3				2		1	2	1		9
	DYA Gares												0

		Garesko BEA, 2016an												
		Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	GUZTIRA
Adios	Iruña, guztira													0
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Añorbe	Iruña, guztira		1	1			1				1			4
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Artazu	Iruña, guztira				1				1					2
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Zirauki	Iruña, guztira				1	1								2
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Eneritz	Iruña, guztira	1												1
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Girgillao	Iruña, guztira							1						1
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Legarda	Iruña, guztira			1			1			1				3
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Mañeru	Iruña, guztira					1				1	1			3
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Mendigorría	Iruña, guztira	1			1					1				3
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Muruzabal	Iruña, guztira		1		1									2
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Obanos	Iruña, guztira					1		1	1		1		1	5
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Olkotz	Iruña, guztira													0
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Gares	Iruña, guztira	2	2	2	3	3	1	2	3	1		1	1	21
	Iruña, DYA							1						1
	Lizarra													0
Tirapu	Iruña, guztira					1								1
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Ukar	Iruña, guztira								1		1			2
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
Uterga	Iruña, guztira													0
	Iruña, DYA													0
	Lizarra													0
GUZTIRA	Iruña, guztira	4	4	4	7	7	3	4	6	4	4	1	2	50
	Iruña, DYA	0	0	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	1
	Lizarra	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
		4	4	4	7	7	3	5	6	4	4	1	2	51

Garesko OBE, 2017an

		Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	GUZTIRA
Adios	BB Iruña									0
	DYA Gares									0
	DYA Iruña	1						1		2
	Lizarra									0
Añorbe	BB Iruña	1	1	2	1	1	4	1	1	12
	DYA Gares						1			1
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Artazu	BB Iruña			1		1				2
	DYA Gares		1					1		2
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Zirauki	BB Iruña	1	1	1	2		4		1	10
	DYA Gares				1					1
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Eneritz	BB Iruña	1	1	1	2	1		1		7
	DYA Gares					2				2
	DYA Iruña	1								1
	Lizarra									0
Girgillao	BB Iruña	4					1		1	6
	DYA Gares									0
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Legarda	BB Iruña		1	1			3		1	6
	DYA Gares		1							1
	DYA Iruña		1							1
	Lizarra									0
Mañeru	BB Iruña	2			1		3		1	7
	DYA Gares			1		1	1			3
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Mendigorría	BB Iruña	5	4		3	1	2	2	1	18
	DYA Gares				1	1	2	2	3	9
	DYA Iruña	1		1				1		3
	Lizarra									0
	Tafalla	1								1
Muruzabal	BB Iruña	3	1	1	2		3	1	1	12
	DYA Gares					1	1	2	2	6
	DYA Iruña			1		1		2		4
	Lizarra									0
Obanos	BB Iruña	2		1	1		1		2	7
	DYA Gares						2	2	1	5

Garesko OBE, 2017an

		Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	GUZTIRA
Adios	BB Iruña									0
	DYA Gares									0
	DYA Iruña	1						1		2
	Lizarra									0
Añorbe	BB Iruña	1	1	2	1	1	4	1	1	12
	DYA Gares						1			1
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Artazu	BB Iruña			1		1				2
	DYA Gares		1					1		2
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Zirauki	BB Iruña	1	1	1	2		4		1	10
	DYA Gares				1					1
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Eneritz	BB Iruña	1	1	1	2	1		1		7
	DYA Gares					2				2
	DYA Iruña	1								1
	Lizarra									0
Girgillao	BB Iruña	4					1		1	6
	DYA Gares									0
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Legarda	BB Iruña		1	1			3		1	6
	DYA Gares		1							1
	DYA Iruña		1							1
	Lizarra									0
Mañeru	BB Iruña	2			1		3		1	7
	DYA Gares			1		1	1			3
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Mendigorría	BB Iruña	5	4		3	1	2	2	1	18
	DYA Gares				1	1	2	2	3	9
	DYA Iruña	1		1				1		3
	Lizarra									0
	Tafalla	1								1

Muruzabal	BB Iruña	3	1	1	2		3	1	1	12
	DYA Gares					1	1	2	2	6
	DYA Iruña			1		1		2		4
	Lizarra									0
Obanos	BB Iruña	2		1	1		1		2	7
	DYA Gares						2	2	1	5
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Olkutz	BB Iruña									0
	DYA Gares									0
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Gares	BB Iruña	4	7	6	9	11	8	7	5	57
	DYA Gares	5	6	4	3	4	2	14	5	43
	DYA Iruña			3	1	2		3		9
	Lizarra				1					1
	Tafalla									0
Tirapu	BB Iruña									0
	DYA Gares									0
	DYA Iruña									0
	Lizarra									0
Ukar	BB Iruña						2	1		3
	DYA Gares									0
	DYA Iruña						1			1
	Lizarra									0
Uterga	BB Iruña	2		2			1		1	6
	DYA Gares			1				1		2
	DYA Iruña						1			1
	Lizarra									0
GUZTIRA	Iruña	25	16	16	21	15	32	13	15	153
	DYA Gares	5	8	6	5	9	9	22	11	75
	DYA Iruña	3	1	5	1	3	2	7	0	22
	Lizarra	0	0	0	1	0	0	0	0	1
	Tafalla	1	0	0	0	0	0	0	0	1
		34	25	27	28	27	43	42	26	252

BB= Baztán Bidasoa

Garesko BEA, 2017an

		Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	GUZTIRA
Adios	Iruña, guztira							1		1
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Añorbe	Iruña, guztira		1	1					1	3
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Artazu	Iruña, guztira									0
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Zirauki	Iruña, guztira							1		1
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Eneritz	Iruña, guztira									0
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Girgillao	Iruña, guztira									0
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Legarda	Iruña, guztira				1				1	2
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Mañeru	Iruña, guztira		1						1	2
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Mendigorria	Iruña, guztira	1		2	1	1				5
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Muruzabal	Iruña, guztira				1					1
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Obanos	Iruña, guztira		1		1					2
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Olkotz	Iruña, guztira									0
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Gares	Iruña, guztira	3	1		2	1	1	2	3	13
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Tirapu	Iruña, guztira									0
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Ukar	Iruña, guztira									0
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
Uterga	Iruña, guztira									0
	Iruña, DYA									0
	Lizarra									0
GUZTIRA	Iruña, guztira	4	4	3	6	2	1	4	6	30
	Iruña, DYA	0	0	0	0	0	0	0	0	0
	Lizarra	0	0	0	0	0	0	0	0	0

Galdera, Arte Gaztearen 2017ko Topaketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Arte Gaztearen 2017ko Topaketei buruzkoa. Galdera 2017ko irailaren 11ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko irailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Arte Gaztearen 2017ko Topaketei buruz (9-17/PES-00196). Hona hemen Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Arte Gaztearen Topaketak programa bilakaera bat izaten ari da erkidego artistikoaren egungo errealitateari egokitzeko. Urte luzetan lehiaketa konbentzionalaren formatua erabili ondoren, 2016an formatu-aldaketa bat hasi zen, programak topagune eta trukatzeko gune izatearen bokaioari erantzun ziezaion, eta hartara hainbat ildotan lan egiteko: Beharrezkoa den sarien bitarteko aitorenaz gainera, esperientzien trukeko guneak sortzea, eta estrategia batzuk edatzea parte hartzen duten artista gazteek profesionalizatzeko urratsa egin dezaten, eta erakusketen eta proiektuen banaketarako zirkuituetan sar daitezzen.

Topaketek izaera hurbilago bat eduki nahi dute, parte-hartzailea, praktikoa, ehundura artistikoa sortzeko eta profesionalagoa; ahaleginak egiten dira hedapena, parte-hartzea eta produkzioa laguntzeko, amaierako sarira soilik ez mugatzeko, iraganeko urteetan egiten zen bezala. Iaz, esate baterako, artistek lehen aldiz aldeztu zituzten beren proiektuak epaimahaien eta aurrez hautatutako gainerako artisten aurrean, eta horrekin aberaste bat gertatu zen lanak, pentsamenduak, irizpideak eta teknikak komunean jartzearekin.

Programa hau Nafarroak Kirol eta Gazteriaren Institutuko Gazteriaren Zuzendariordetzaren lan-ildoan osatzen dutenetako bat da, eta gazteen sormena sustatzearekin lotuta dago. Ildo horretan, zeinak aurrean zuzkidura ekonomiko handiagoa baitu, alde batetik ekintza proiektuak gauzatzen ari

dira —esate baterako, sormenezko literaturako tailerrak edo gazteen modaren sariketa— eta, bestetik, beste departamentu batzuekiko koordinazio-proiektuak: aurrean, Arte Gaztea Ospitaleetan proiektuaren lehen atala garatu da, Osasun Departamentuarekin batera, eta hartan CACHen emandako prestakuntza eta egonaldi bat jaso dira. Halaber, Hezkuntza Departamentuarekin batera lan egin da CreArtefuturo ospakizunerako. Irailaren 29an eta 30an izanen da.

Arte Gaztearen Topaketen edizio honetan, arte plastikoaren eta ikus-entzunezkoaren modalitateak batean bildu dira, programa izaten ari den bilakaeraren esparruan, eta kontuan hartuta joan den edizioan epaimahaietako zenbait kidek egindako iradokizunak; izan ere, haien irizpidearen arabera, bi modalitateetako batean aurkeztutako piezak, beste modalitateari zegozkion, eta alderantziz.

Sormen eta arte gaztea direla-eta ezarritako helburuak bete ahal izateko, Gazteriaren Zuzendariordetza ahaleginak egiten ari da hainbat proiektutako parte-hartzea errazteko, hain zuzen ere nahitaez modalitate jakin bati ez dagozkienean.

Helburua diziplinen arteko elkarrizketa irekitzea da. Lanetatik asko filosofiari, analisiari, kritika sozialari eta analisi psikosozialari buruzkoak dira, eta arte plastikoaren eta bideo-artearen baliabideek gogoeta horiei ekiteko bidea errazten dute. Taldeko lanak testuinguru berria determinatzen ditu, eta neurri baten edo bestean, gaintutuz jotzen da generoen edo modalitateen arabera bereizitako artearen planteamendua, edo beren produkzioan bereizitako lanena. Biak bateratuta, kontua da azken batean lengoia aberastea. Horrenbestez, helburua ez da zenbateko ekonomikoak gutxitzea (Topaketetara beste toki batzuetatik bideratzen ari direnak), baizik eta parte-hartzerako aukerak zabaltzea.

Horri dagokionez, beste ekintza batzuk aurreikusita daude, programa osatuko dutenak; esate baterako "topaketa" ireki bat, non modalitate guztietako artistak bilduko baitira, bai eta artearen munduarekin lotutako gazteak ere. Jardunaldi horrek aukera emanen du batxilergo artistikoetan, 18 urte baino gutxiago dituztela, beren karrera artistikoak hasten ari direnek parte har dezaten.

Sarien zenbatekoari dagokionez, 2016an lau modalitateetarako eman ziren, eta modalitate bakoitzean lau sari: 2.500 euroko lehen sari bat;

1.500 euroko bigarren sari bat; 1.000 euroko hirugarren sari bat, eta 500 euroko laugarren sari bat.

Aurrez azaldu denez, edizio honetan aurreikusi da hautatutako artistak saritzea eta laguntzea bi norabidetan: batetik, eskudiruko sariei eusten zaie, eta, bestetik, produkzio artistikoan eta hedapenerako zirkuitu eta baliabide berrietan sartzen lagunduko zaie. Programatuta dauden tailerrak, hitzaldiak eta aholkularitzak norabide horretan daude.

Xede horrekin, ahalegin ekonomiko handiago bat egin da aholkularitzaren ardura duten epaimahaietan, tailerren antolaketan, lanen produkzioa-

ren jarraipenean eta saritutakoekin itundutako tutoretzetan. Epaimahaien jarraipena denboran luzatuko da prozesu hori indartzeko. Honako hauek dira 2017ko ediziorako aurreikusitako sariak: Lehenengo saria 2.500 eurokoa da, bigarrena 1.500 eurokoa eta hirugarrena, berriz, 1.000 eurokoa.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 2017ko irailaren 26an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

Galdera, Kulturaren Plan Estrategikoa prestatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kulturaren Plan Estrategikoa prestatzeari buruzkoa. Galdera 2017ko irailaren 11ko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

“EH Bildu Nafarroa” talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du Kulturaren Plan Estrategikoa prestatzeari buruz (9-17/PES-00197). Hauxe da Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteriako Departamentua legegintzaldiaren hasieratik lanean jardun du kultur diskurtso bat batera eraikitzeko partaidetzazko prozesuetan, eta gonbita egiten dien eragileei, kolektiboari eta herritarrei lanerako mahaietan parte har dezaten. Helburu nagusien artean, honako hauek daude: batetik, garapen komunitarioa gardentasunaren bitartez sustatzea, herritarrek adierazten dituzten beharri zaneiei hobeki egokitzeko; eta, bestetik, zerbitzu publikoen kalitatea hobetzea parte hartu nahi

duten entitate, pertsona, artista, agente eta kolektiboek egiten dituzten intereseko proposamenen bitartez.

Ildo horretan, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak 2016ko apirilaren 19an, partaidetza prozesu bat jarri zuen abian Nafarroako Museoan (2017ko urtarrilaren 17an, berriz, itzulerako saioa egin zen). Prozesuak zenbait fase izan zituen, bai informazio zein kontsultakoak (sektorialak eta lurraldekoak), bai eztabaidakoak.

Informazioa eta kontsulta (sektorialak)

- Maiatzaren 16an: Museoak (NAPIren Pío Baroja aretoa).
- Maiatzaren 17an: Artxiboak (Nafarroako Artxibo Nagusia).
- Maiatzaren 18an: Ondare historikoa (NAPIren Pío Baroja aretoa).
- Maiatzaren 23an: Liburutegiak (NAPIren Pío Baroja aretoa).
- Maiatzaren 24an: Kultur ekintza: Ikus-entzunezkoen eta zinemagintzaren sektorea (NAPIren Pío Baroja aretoa).
- Ekainaren 1ean: Kultur ekintza: Musika (NAPIren Pío Baroja aretoa).
- Ekainaren 2an: Kultur ekintza: Arte eszenikoak (antzerkia eta dantza) (NAPIren Pío Baroja aretoa)

Informazioa eta kontsulta (7 lurralde-foro)

- Irailaren 19an: Tuter (Almirantearen Etxea-Castel Ruiz).
- Irailaren 20an: Tafalla (Tafalla Kulturunea).
- Irailaren 21ean: Lizarra (Karlismoaren Museoa)
- Irailaren 26an: Iruña (NAPI)
- Irailaren 27an: Doneztebe (Antzinako Jubilatuen Etxea).
- Irailaren 28an: Altsasu: (Kultur Etxea).
- Urriaren 3an, Zangozan (Vallesantoro Jauregia-Kultur Etxea).

Partaidetza prozesuaren bigarren fasea eztabaidakoa izan zen. Fase horrek partaidetza zehatzago bat izan zuen bereizgarri, Nafarroako kultura-politikarako garrantzi bereziko gaiak ardatz hartuta.

- Kulturaren irisgarritasunari eta ikusgarritasunari buruzko eztabaida-saioa: Urriaren 25ean (Uharteko Arte Garaikideko Zentroa).

- Araudiari buruzko eztabaida-saioa: Mezenasgoaren Legea eta Kulturaren Eskubideari buruzko Legea: Urriaren 28an (NAPIren eraikina, Blanca de Navarra aretoa).

- Plangintzari eta Kudeaketari buruzko eztabaida-saioa: Azaroaren 2an (Nafarroako Artxibo Nagusia).

- Araudiari buruzko eztabaida-saioa: Lege sektorialak: Azaroaren 3an (NAPIren eraikina, Pío Baroja aretoa).

Behin eztabaida-fasea amaituta, partaidetza-prozesuaren emaitzak jasotzen zituen dokumentuaren zirriborroa jendaurreko fasean jarri zen; hartan, Gobernu Irekiaren web-orriaren bitartez, aukera egon zen dokumentuari ekarpenak egiten jarraitzeko; ekarpen horiek, gero, partaidetza-prozesuaren amaierako txostenean sartu ziren, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren 2016-2019 urterako ildo estrategikoekin lotuta. Prozesu horretan, esparru publiko eta pribatuko kultur erabileren 601 ekarpen jaso ziren, bai eta hirugarren sektorearen eta, oro har, herritarren ekarpenak ere, eta haiei Gobernu Irekian eman zitzaizen erantzuna.

Prozesu hori –Nafarroako Gobernuaren kulturaren arloko departamentu eskudun batek ezauzgarri horiekin aurrera eramaten duen lehenengoa–

funtsezko informazio iturri bat da Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikorako, datozen urteetako diagnostikoei eta ekintza-planari dagokienez.

Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa, 2017-2023

Programa-akordioak, kulturaren esparruan, dio “Aniztasunean eta lidergo partekatuan oinarritutako parte-hartzearen alde argi egin” beharra dagoela. “Kulturaren Nafarroako Kontseilua sortzea – kulturaren esparruko eremu eta sentsibiltate guztiek hartuko dute parte Kontseiluan, eta guztiek izanen dute ordezkaritza–. Besteak beste, kultura-plan estrategiko bat egiteko, Kontseiluak berak diagnostikatzen dituen egoeraren eta beharren arabera”. Horri dagokionez, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak lantalde bat sortu zuen –Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren barruan–, eta lantalde horrek sektore kulturalen aurre-diagnostikoak egin ditu, eta kanpoko laguntzarako lizitazioa egin zuen, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoa, 2017-2023, egiteko. Ikertalde Grupo Consultor SA izan zen lizitazio hori irabazi zuena (zazpi hilabeteko iraupena zenbatetsi zitzaion), eta 2017ko abendura arte lan eginen du plan estrategikoan.

Planaren prestaketa honako fase hauen arabera egituratuta dago:

I. fasea eta II. fasea: Kulturaren Plan Estrategikoaren helburuak, ildo estrategikoak eta metodologia zehaztea, horren barne dela komunikazio-plana; Nafarroako sektore kulturaleri eta sortzaileei buruzko diagnostikoa egitea.

III. fasea: Lan-mahaiak egitea: sektorialak, zeharkakoak eta lurraldekoak; halaber, partaidetza-esparru honetan beharrezkoak diren jarduerak eginen dira.

IV. fasea: Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren zirriborroa egitea, Gobernu Irekian ekarpenak jasotzea eta Kulturaren Plan Estrategikoaren amaierako dokumentua aurkeztea.

Une honetan, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoak III. fasea amaitu berri du. Fase hori kulturaren eta artearen arloko eragileekiko zeharkako lan-mahaietako partaidetza prozesuei dagokie, Nafarroako hainbat herritan, bai eta eztabaida-laborategiekin eta herritarren mahaiekin egindako lanei ere; honako hau da egutegia:

KULTURAREN ETA ARTEAREN ARLOKO ERAGILEEKIKO ZEHARKAKO LAN-MAHAIAK		
	LEHEN BILERAREN DATA	BIGARREN BILERAREN DATA
ATARRABIAKO lan-mahaia Non: Atarrabiako Kultur Etxea	Abuztuaren 28an. 17:00-19:30	Irailaren 18an. 17:00-19:30
ZANGOZAKO lan-mahaia Non: Vallesantoro jauregia	Abuztuaren 29an 9:30-12:00	Irailaren 19an 9:30-12:00
TAFALLAKO lan-mahaia Non: Tafallako Kulturguneko zine aretoa	Irailaren 5ean. 17:00-19:30	Irailaren 19an 17:00-19:30
LIZARRAKO lan-mahaia Non: Karlismoaren Museoa	Abuztuaren 30ean 17:00-19:30	Irailaren 20an 17:00-19:30
TUTERAKO lan-mahaia Non: Almirantearen Etxea	Abuztuaren 31n 17:00-19:30	Irailaren 14an 17:00-19:30
ALTSASUKO lan-mahaia Non: Iortia Kultur Gunean	Irailaren 4an 11:00-13:30	Irailaren 22an. 17:00-19:30
EZTABAIDARAKO LABORATEGIAK - BERARIAZKO GAIK		
	BILERAREN DATA	
Kulturaren eta sormenaren industrien laborategia Non: Iruña (NAPIren Pío Baroja aretoa).	Abuztuaren 30ean 09:00-11:30	
“Generoaren ikuspegia Nafarroako kulturari” laborategia Non: Iruña (NAPIren Pío Baroja aretoa).	Irailaren 5ean 09:00-11:30	
Kulturaren eta sormenaren hibridazio-laborategia Non: Iruña (NAPIren Pío Baroja aretoa).	Irailaren 6an 09:00-11:30	
HERRITARREN MAHAIAK		
	BILERAREN DATA	
TUTERAKO lan-mahaia Non: Almirantearen Etxea	Irailaren 25ean 17:00-19:30	
IRUÑEKO lan-mahaia Non: Kultura Departamentuko Pío Baroja aretoa	Irailaren 26an 17:00-19:30	
ALTSASUKO lan-mahaia Non: Iortia Kultur Gunean	Irailaren 27an 17:00-19:30	

Parte hartu duten eragile eta kolektiboak

Kulturaren Plan Estrategikoa egiterakoan kontuan hartu diren kultur eragileei eta kolektiboek dagokienez eta oinarri gisa hartu diren irizpideei dagokienez, esan beharra dago oraindik ere irekita dagoen prozesu bat dela, eta bertan kontuan hartu direla eta kontuan hartzen ari direla artxiboen, museoen, ondare historikoaren, liburutegien, ikus-entzunezkoen sektorearen eta zinema-sektorearen eta musika eta arte eszenikoen –profesionalak zein amateurrak– sektoreetako eragileen ekarpenak; kulturaren eta sormenaren industriena; koordinatzaile kulturarenak eta toki entitateenak, eta erakundeetako eta gizarteko eragileenak –turismoaren, merkataritzaren, ekonomia-aren, industriaren eta hezkuntza-sektorearen esparruetakoak–. Haiekin saio sektorialak, lurraldekoak eta eztabaidakoak egin dira, erkidegoko hainbat tokitan.

Mahai eta laborategietarako gonbita egin zaie interesdun guztiei zein 2016an partaidetza-prozesuan parte hartu duten guztiei, eta Nafarroako toki entitate guztiei; Zuzendaritza Nagusiaren zabalkunderako datu-baseko 3.000 erregistroei bidalketak egin zaizkie, bai eta Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuko langile guztiei ere, azpimarra berezia jarriz zerbitzu burutzetan, eta eskatu zaie informazioa birbidaltzeko lan-esparruko kultur-eragileei, artistei eta kolektiboek, profesionalak zein amateur direnei; eta, orobat, Nafarroako

Kultur Kudeatzaileen Elkarteari, Gobernuko beste departamentu eta erakunde autonomoek eta Nafarroako Kulturaren Kontseiluari.

Hedabideetarako prentsa-oharrak argitaratu dira, eta informazioa eskuragarri dago Gobernu Irekian, gaztelaniaz eta euskaraz: (<http://www.gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/nafarroako-kulturaren-plan-estrategikoa-2017-2023>) ekarpen presentzialak –izen-emate bidezkoak–, zein posta elektronikoa- ren bidezkoak egiteko: plancultura@navarra.es; aukera hori prozesuaren amaierara arte egonen da baliagarri ekarpenak egiteko.

Mahai hori egin ondoren, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren zirriborroa egingen da, eta Gobernu Irekiaren atarian argitaratuko da; horrek aukera emanen du berriz ere herritarren, artisten, eragileen eta kolektiboen ekarpenak jasotzeko; haiek aztertu eta baloratu ondoren, lanketa prozesua amaituko da, Nafarroako Kulturaren Plan Estrategikoaren (2017-2023) amaierako dokumentuaren onespenerekin.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2017ko urriaren 2an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

Galdera, aldi baterako irakasle-kontratazioko lanpostuen esleipenean izandako akatsei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, aldi baterako irakasle-kontratazioko lanpostuen esleipenean izandako akatsei buruzkoa. Galdera 2017ko irailaren 15eko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko urriaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak 9-17/PES/-00200 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

1.- Honako hau galdetu da: “Zergatik gertatu dira akatsak irakasleak aldi baterako kontratazko lanpostu-esleipenean? Erantzuna da akats tekniko informatiko bakarra egon dela, irakasleen 3.000 adjudikazio baino gehiagotan, ekaineko eta abuztuko ekitaldi publikoak eta lanpostuen lehengo 10 adjudikazio telematikoak batera hartuta.

2. Honako hau galdetu da: “Zeintzuk eta zenbat izan dira lehendabiziko lanpostu-esleipenetan —ekainaren amaiera aldean— eta berrikitan egindakoetan —abuztuaren amaiera aldean— detektatutako akatsak?” Erantzuna 1. galderari eman zaion bera da.

3.- Honako hau galdetu da: “Nola liteke existitzen ez den lanposturik esleitzea?” Erantzuna da

egiarki ezin direla adjudikatu existitzen ez diren irakasle-lanpostuak.

4.- Honako hau galdetu da: “Departamentuko zer arduradunek kudeatu du esleipen hori?” Erantzuna da irakasleen lanpostuak adjudikatzen direla, publikoak zein telematikoak, hainbat zerbitzuren koordinazioa eta lankidetzaren behar izaten dela: Hezkuntzako Ikuskaritza, Teknologia Berriak eta Informazio Sistemak eta Giza Baliabideak.

5.- Honako hau galdetu da: “Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko ditu egindako akatsak zuzentzeko?” Erantzuna da neurri zehatzak berehala jartzen direla praktikan, eta horixe egin zela ATPrako.

6.- Honako hau galdetu da: “Nola liteke horretarako prestatutako plataformak halako akatsak egitea?” Erantzuna da ez direla akatsak izan, baina akats informatiko bakar bat, garrantzi oso txikikoa, eta ordubete baino denbora gutxiago behar izan zela hari konponbidea emateko, eta hartatik bi irakasle onuradun gehiago atera zirela (une hartan lanpostu bat esleitu zitzaizkien 424 irakasleez gainera). Berehala zuzendu zen akatsa, hobera egiteko.

7.- Honako galdera hauek egin dira: “Nork diseinatu zuen plataforma hori? Zenbateko kostua izan zuen?” Erantzuna da aplikazio informatikoa Hezkuntza Departamentuaren beraren barneko giza baliabideekin diseinatu dela.

Iruñean, 2017ko urriaren 4an.

Hezkuntza Departamentuko kontseilaria eta Gobernuko eleduna: María Solana Arana

Galdera, Nafarroako Gobernuak ENCORE-Ingurumenari buruzko Europako Erregioen Konferentzian parte hartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak ENCORE-Ingurumenari buruzko Europako Erregioen Konferentzian parte hartzeari buruzkoa. Galdera 2017ko irailaren 22ko 116. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2017ko irailaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

“EH Bildu Nafarroa” talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari el Parlamentario Foral Ilmo. Sr. D. Maiorga Ramirez Errok adscrito idatziz erantzuteko galdera egin du irailaren 18an eta 19an ENCORE-Ingurumenari buruzko Europako Erregioen Konferentziaren barruan, Europako hogeitabi erregioek egindako jardunaldiari buruz (9-17-/PES-00208). Honako hau da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Kontseilariaren erantzuna:

Europar Batasunean, ingurumen-gaietarako 140 sare erregional edo beste gisa batekoak daude. Nafarroak, bere gobernuaren bitartez zuzenean edo bere ente publikoen bitartez sare horietako zenbaitetan hartzen du parte (ikus eranskina). Horien artean, ez dago Encore Sarea. Sare horietan guztietan parte hartzeak erregio-gobernu honen edo beste edozeinen ahalmena gaitzen du.

Beheko zerrendari gehitu behar zaizkio Gobernu edo bere ente publikoak Europako esparru honetan egiten ari diren beste hainbat jardura. 2015eko abenduaren 6an, Parisen, Nafarroako Gobernuak, Europar Batasunaren proposamenaren ildoan, mundu osoko ehun bat erregiorekin batera, Under2Mou⁽¹⁾ sarea izeneko ekimena izenpetu zuen. Sare horren lidergoa Kaliforniako Estatuarena (Estatu Batuak) eta Baden-Württemberg-ena (Alemania) da, eta konpromisoa da 2050erako berotegi efektuko gasen emisioak % 80 gutxitzea.

Nafarroako Gobernuak Eskualdeetako Lantaldeko Ingurumen Batzordeko kidea da⁽²⁾. Hori guztia dela eta, Nafarroak “Trantsizio Energetikoa” izeneko plataforma koordinatzen du, zeina Europar Batasunak “Hiri Agenda” delakoaren esparruan sortu baitu aurretik⁽³⁾.

Bestetik, Nafarroako Gobernuak Horizonte 2020 “Screen” (Systemic approach towards a transition to Circular Economy in EU rEGions within the context of the Smart Specialization Strategy)⁽⁴⁾ proiektuan hartzen du parte; haren helburua da metodologia erregionalak sortzea ekonomia zirkularrean integratutako estrategiak egiteko. 2016an adjudikatutako proiektu hori erakusle gaitzat jo du Europako Batzordeak.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen Ordezkaritzaren “Sareak” atalean, http://na.bruse-las.site/eu/redes?f%5B0%5D=field_sector%3A7 Europako testuinguruan dauden sare garrantzitsuenak aurki daitezke, gaien eta espezialitatearen arabera sailkatuz.

(1) <http://under2mou.org/>

(2) <http://cor.europa.eu/en/activities/commissions/Pages/cor-commissions.aspx?comm=ENVE>

(3) http://ec.europa.eu/regional_policy/en/policy/themes/urban-development/agenda/

(4) <http://www.screen-lab.eu/>

Izena	Esparrua eta deskribapena
ICLEI	ICLEI-Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuak mundu osoko sare liderra da, 1.500 hiri eta erregio biltzen baititu, etorkizun jasangarri bat eraikitzen konpromisoa hartutakoak.
The Climate Group	“Zero-emisioak” lortzearen aldeko ente publiko eta pribatuen sarea.
Compact Regions	“The Climate Group” delakotik sortutako proiektua da. Estatuetak, erregioetako eta tokiko gobernuen sarea da; helburu du klima aldaketaren aurkako planei buruzko datuak eta estatistikak elkarrekin trukitzea.
Under2Mou	Kaliforniak lideratutako ekimena da, soilik erregioetako gobernuak hartzen dituen. Gau egun “Compact Regions” da idazkari lanak egiten dituen.
ACR+	Baliabideen kontsumo arduratsua eta hiri-hondakinen kudeaketa jasangarria sustatzeko helburua partekatzen duten hiri eta erregioen nazioarteko sarea da; horretarako, haiek sortzen diren tokiko prebentzioa, berrerabiltzea eta birziklatzea bultzatzen dute. Ekonomia Zirkularrari buruzko gaietarako erreferentzia bat da (ikus esteka)
EUROMONTANA	Europako sektore anitzeko elkarte bat da, mendi-lurraldeetako lankidetzarako eta garapenerako. Europa osoko mendiko erakunde erregional eta nazionalak hartzen ditu, horren barne direla garapen erregionaleko agentziak, tokiko agintariak, nekazaritza-erakundeak, ingurumen-erakundeak, basogintza-erakundeak eta ikerketa-institutuak.
ERIAFF	Nekazaritzaren, basogintzaren eta elikagaien industriak lehentasun gaketzat definitu dituzten Europako erregioen interesak ordezkatzen ditu.
ERRIN Network	The aim of the ERRIN Energy and Climate Change Working Group in 2017 is to stimulate cooperation between ERRIN regions, the European Commission and other associations engaged and active in EU energy & climate policy. A further core aim of the WG in 2017 will be to stimulate discussion and collaboration around the areas of low carbon energy technologies, energy systems, as well as, resulting in greater visibility and profile of the regional dimension in the European energy and climate policy and funding environment.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2017ko irailaren 27an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

